



**ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENAK IZAPIDETZEA ETA**  
**KLASIFIKATUTAKO JARDUEREN LIZENTZIAK**

**ALDEZ AURREKO JAKINARAZPEN EDO AITORPEN ARDURATSURA**  
**LOTUTAKO JARDUERAK**

Euro/eraikitako m<sup>2</sup>

- Aldez aurreko jakinarazpena edo aitorpen arduratsuaren egiaztapena 4,48

Tasaren kopurua 2.800,00 eurokoa izango da gehienez.

**LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERAK**

Euro/eraikitako m<sup>2</sup>

- Jarduera lizentzia 1,13

- Aldez aurreko jakinarazpena edo aitorpen arduratsuaren egiaztapena 4,48

Nolanahi ere, bi lizentziengatik ordaindu beharreko tasa gehienez 5.600,00 eurokoa izango da.

**TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK**

a) Obren ondoriozko behin-behineko lokal lekualdaketak, aurreko lokalera urte beteko gehiengo epean itzultzeko, tasa %50ean gutxituko da.

b) Jarduera batetan funtsezko aldaketak gertatzen direnean, azalera, instalazioak, etab. haunditu direla eta, aldez aurreko jakinarazpena, aitorpen arduratsua edo hala badagokio, lizentzia berria, eskatuko da, bakoitzari dagokion tasa kobratuaz.

c) Jarduera aldaketen kasuan, aipatutako tasak kobratuko dira dagokion jarduera motaren arabera.

d) Lizentzia emateari buruzko udal erabakirik hartzen ez den artean, interesatuak bere eskariari uko egin ahal izango dio, kasu honetan tasa aipatutako lizentzia eman izan balitzaio ordaindu beharko lukeenaren %20ra murriztuko delarik. Espresuki egin beharko den uko egite edo bertan behera uzte honek, lizentzia emateko erabakia hartu ondoren formulatutakoa, ez du dagokion tasaren murriztapen edo itzulketarako eskubiderik ekarriko.

Beasainen, 2.018ko iraila